

PASAIA

**Pasai San Pedro, Pasai Donibane (San Juan),
Trintxerpe, Pasai Antxo (Antzio)**



- Eskuinera: San Juan. Pasai Donibane:
2.400 bizilagun. Udaletxea.
- Eskuinera: portuaren beste aldetik: Pasai San Pedro
2.809 bizilagun. Bertan dago “Albaola”.
- Pasai San Pedroren segidan: Trintxerpe
6.229 bizilagun. Donostiarekin mugakide
2007an. Donostiari itsatsitako barrutia.
- Ezkerrera: Pasai Antxo (Antzio)
4.644 bizilagun. Errepidea bertatik pasatzen da.

HISTORIA

1805. urtean Pasai Donibane, Pasai San Pedro eta Pasai Antxo elkartu ziren herria sortzeko. 1990eko hamarkadan, San Pedroko zati zen Trintxerpe banatu eta barruti berri gisa sortu zen.

Itsasoari lotua:

KAIA: Euskal Herriko hirugarrena, Bilboko portua eta Baionakoaren ondoren. Urtean 4 milioi tona inguru mugitzen ditu. Pasaiaiko historia eta bizitza portuarekin estu-estu lotuta ageri dira.



Kanala pasa San Pedrotik Pasai Donibanera (San Juanera): “Pasa” hitzetik datorkio izena, “Pasaia”, “Pasajes”. Gaur egun ontzitxo bat ibiltzen da, 0,70 euro kobratzen du. Garai batean “emakumeak egiten zuten lan hori, “batelerak”.

Erromaren portua: Oiartzungo “Arditurri”ko meatzeak (blenda, galena, burdina)hemendik eramaten zituzten.

Portuaren arazoa:

Itsasadarrek aspaldian duen arazo nagusienetakoa da etengabe dragatu behar dela, nabigagarria izan dadin. Jalkin-lurrek badia lokazten dute, eta Oiartzun ibaiak ekarritako meatze-isuriek arazoa areagotu dute. Wilkinsonen 1837ko grabatuari begiratu bat ematea nahikoa da bilakaera ikusteko: Errenteria ageri da, eta gaur egungo Biteri kaleraino ibaia nabigagarria da.

Arraunlariak:

San Pedrok arraun taldea du, San Juanek ere bai, “Koxtape”. Biak onen-txoenen artean ibiltzen dira. Azken garaian San Juan hobeto dabil. Bien artean betiko lehia mantentzea normala da, zein baino zein hobea. Bi taldeak dute bere historia propioa, bakoitzak bere sariak eta txapelak.



Koxtaperen Palmaresa: Kontxako Bandera

- Txapelduna (4): 1986, 1988, 1990 eta 1999.
- Bigarrena (3): 1978, 1989 eta 1997.
- Hirugarrena (6): 1965, 1975, 1983, 1985, 1987 eta 2001.
- Sailkapen estropadako irabazlea (3): 1977, 1986 eta 2010.
- Sailkatua (30): 1972, 1974, 1975, 1977, 1978, 1983, 1984, 1985, 1986, 1987, 1988, 1989, 1990, 1991, 1992, 1995, 1996, 1997, 1998, 1999, 2000, 2001, 2002, 2003, 2005, 2010, 2011, 2012, 2014 eta 2015.



San Pedroren palmaresa: Kontxako bandera:

- 1989, 1991, 1993 y 1994
(beste 11 aldiz klub ofiziala egin arte)
- 4 Espainiako txapeldun: 1988, 1989, 1990 y 1994.



Donibaneko Eraikuntzak

Batelerak. Garai zaharretan, badia alderik alde pasatzen zituzten emakumeei deitzen zitzairen. Haien omenez dago monumentu bat.

Kaleetan zehar. Harritzekoak dira Donibaneko kaleak, kostaldeko hainbat lekutan bezala, estuak, alderik alde ethez josiak. Esan didatenez, denetarik dago, XVI., XVII. Eta XVIII. Mendekoak.





Itsasontziak kaian



Etxeak portuan



Jantoki bat



Kaia urbanizatua



Etxeak



Itsasargi txiki bat



San Juan eliza (1643)
(neoklasiko/barroko)



Garai bateko tximinia
(itxita)



Pasaia itsasargia (Uliako bidean)



Santo Kristo Bonantzakoa
(XVIII)



Santa Ana
(jatorri erromanikoa,
1758an berritua)
(Barrokoa)

PERTSONAIK:

- Paco Rabane (1934, Trintxerpe)
- Mikel Laboaren sustraiak.
- Mikel Astarloza txirrindularia
- Koldo Izagirre idazlea

Victor Hugoren etxea

Gaur egun Victor Hugo etxea bezala ezagutua dena Mirandatarren etxalekuen parte izan zen. Hala ere gaur egun mundu guztiak Victor Hugo etxea bezala ezagutzen du, bertan idazle frantziarra egon zelako.



1843ko udan Victor Hugo ez zuen Pasaia bisitatzea erabaki, halabeharrez topatu zuen. Pirinio aldean bidaia bat egiten ari zen, Donostiatik txangoa egiten, Ulia mendian barrena, San Pedroraino heldu zen. Batelerak, “pasai berria eta pasai zaharra”ren arteko komunikazioaren arduradunak ziren emakume ausar-

tek, Pasai Donibaneraino eraman zuten eta, ikusten zuenarekin liluraturik, denboraldi bat geratzea erabaki zuen, gaur egun Victor Hugo etxea bezala ezagutua den etxean. Ikusle ona izanda, inguruaren deskribapen ederra egiteko aukera ez du galtzen, errealismo, errespetu, gizatasun, gar eta baita ironia erabiliz ere. Idazlearen bidaiaaren idatzi eta oharki guztiak, egunkari erara, Pirinioak liburuan azaltzen dira, J. de Olañetak argitaratua, eta autoreak berak egindako marrazkiak ere badituena.

Victor Hugo etxea oinarri errektangeluarrekkoa da eta lau isuriko teilatua dauka. Fatxada nagusia badiari begira dago, oinarri baxuko terraza batekin. Lehen eta bigarren solairuetan balkoi aske eta jarraiak ikus daitezke fatxada guztian zehar, egurrezko eskulekuarekin. Atzealdeko fatxada, kalearen gainetik pasatzen da alboetako batean, arku eskartzano baten bidez pasabide bat irekiz muturretako batean eta egurrezko habeekin estalitako ateburu (dintel) batekin beste muturrean.


Victor Hugo etxeko hiru solairuetan zehar, “Erakusketa iraunkorra: Garai bateko Moda (XIX.mendea)” izeneko erakusketa iraunkorra bisita dezakegu, behin behineko erakusketetarako aretoa eta Pasaia Turismo Bulegoaz gain: 943 34 15 56.

Victor Hugok, biziki maite zuen Euskal Herria. Asko idatzita dago hari buruz, eta berak ere asko idatzi zuen euskaldunei buruz. Hori guztia, ia osoko, gaztelaniaz edota frantsesez dago idatzita.

Duela urte batzuk Koldo Izagirrek euskaratu zituen haren hainbat lan. Hemen doakizu, lagin txiki bat:

Euskaldunak Victor Hugoren begietan

Victor Hugok Euskal Herrian ikusi eta bizitakoaz idatzitakoa euskaratu zuen Koldo Izagirrek.



Victor Hugori buruzko liburu bat plazaratu zuen euskaraturik Elkarlanean argitaletxeak. Koldo Izagirrek euskaratu zituen liburua osatzen duten testuak: *Les Pyrénées* bidaia liburuko pasarteak, Victor Hugok 1843ko uztaillean Euskal Herrian zehar egindako bidaian ikusi eta bizitakoak jasotzen dituztenak. Baiona, Miarritze, Irun, Pasaia, Lezo, Donostia eta Iruñeko ibiliak agertuko dira, besteak beste, liburuan.

Liburu horretako hiru pasarte ekarri ditugu orrialde honetara. Lehena da, dudarik gabe, ezagunena.

Ez Frantzia ez Espainia

Badakizu non naizen? Hiri xarmagarri batean. Donostian. Eta zertako naizen hemen? Zertara etorri naizen hona? Ez dakit egiazki. Gogoak eman dit Espainian sartzeko, eta horra.

Baina Espainian ote naiz? Donostia lotua da Espainiari, Espainia Europari lotua den moduan, lur-mihi batetik. Uharte da kasik. Eta beste hainbat gauzatan bezala hemen ere itxura fisikoa egoera moralaren iduria da. Oza izan liteke nehor espainiarra Donostian; euskaldunak dira denak. Gipuzkoa da hau, foruen herri zaharra, euskal probintzia libre zaharrak. Ongi da gaztelera apur bat hitz egitea; baina bascuence hitz egiten da hemen bereziki. Emazteek mantelina daramate, baina ez daramate gonapekorik, eta madrildarrek hain koketeria handiz eta graziaz begietaraino daramaten mantelina hori, buruaren atze alderaino jasotzen dute gipuzkoarrek, eta horrek ez die kentzen koketak eta graziadunak izatea (...).

Eta gainera, nonahi ageri dituzu frantsesak; hirian, botikak dauzkaten hamabi merkataritan hiru frantsesak dira. Ez naiz kexatzen, oharrarazi egiten dut. Gainerakoan, usaien aldetik bakarrik hartzen baldin baditugu, hiri hauek guztiak, hala alde batekoak nola bestekoak, Baiona nahiz Donostia eta Oloron nahiz Tolosa, herri mixtoak dira. Nahasi egiten diren herrien irakina ezagun dute. Ibaien bokaleak dira. Ez da Frantzia ez Espainia; ez itsaso, ez ibai.

Itxura berezia dute, egia esan, eta aztertze modukoa. Erantsiko nuke hemen ezerk, ez hitzarmenek, muga diplomatiko horiek, ez Pirinioek, muga natural horiek hautsi ahal izan ez duten lotura sekretu eta sakon batek batzen dituela euskal familia

misteriotsuaren haurride guztiak. Navarra hitz zaharra ez da hitz bat. Euskaraz sortu, euskaraz mintza, euskaraz bizi eta euskaraz hil. Euskara aberri da hemen; erlijio, esango nuke. Esaiotzu euskarazko hitz bat baserritarrari mendian; hitz horren aitzinetik, doi zinen gizon bat harentzat; hitza esandakoan, anaia zaitu. Espainiera atzerriko da hemen, frantsesa bezala.

Dudarik gabe, euskal batasun hau ahuldu eta desegin egingen da azkenean. Estatu handiek irentsi egin behar dituzte txikiak; historiaren eta naturaren legea da. Baina nabarmentzekoa da batasun honek, hain ahula itxuraz, hainbeste denbora iraun izana. Frantziak Pirinioen alde bat hartu du. Espainiak hartu du bestea; ez Frantziak eta ez Espainiak lortu dute euskal taldea sakabanatzea. Lau mendetik hona gaineratzen zaion historia berriaren azpian, guztiz ikusgarri dago aintzira baten hondoko kraterra bezala.

Oiarbide

Izena Oiarbide omen duen euskaldun handi eta sendo bat datorkit ene puskak eramanez dituela esanez. Hartzen ditu.

Karga dute!
Zenbat nahi duzu?
Pezeta bat.
Ados.

Hartzen du dena buru gainean eta intziri egiten du zamaren pean. Atso xahar bat ikusten dugu, oinutsik, jadanik zamatua. Ez dakit zer esan dion euskaraz harengana hurbilduta; atsoa gelditu egin da. Gizonak bere zama guztia paratzen dio buru gainean erdi betea daraman otarrean eta enegana itzultzen da gero. Atsoa aitzinetik doa. Oiarbide, eskuak bizkar atzean, ene ondotik dator solas eginez. Badu behor bat; eskaini egiten dit egunpasa joateko Hondarribira eta Errenderiara; zortzi sos, egun batekoa. Heldu gara. Atsoak Oiarbideren oinera jaitsi du bildua eta erreberentzia egin dio. Bere pezeta ematen diot Oiarbideri.

Ez diozu deus eman behar emazte dohakabe horri? esan dit.

Bizartegi batean

Bizartegi batean sartu naiz. Soto antzeko batean bizi da artista hau. Baditu hiru pareta handi, leihorik ez; ate bat ondoan. Louis XV. ispilu exquisito batez, Austerlitz eta Marengo-ko bi grabatu koloreztatuz, haur ttipi batez eta antzina borrareroaren etxean egoten ahal ziren bezalako bi gurpil handiz dago jantzia etxea. Gizon honek lau hizkuntza mintzo ditu, kiratsa dario eta miresgarri egiten du bizarra. Hona hemen bere historia. Aquisgran-en sortu zen, eta alemanez egiten du. Enperadoreak frantses bilakatu zuen eta inperioak soldadu, frantsesez egiten du. Espainiarrek atxilo hartu zuten 1811n, espainieraz egiten du. Hemen ezkondu zen euskaldun batekin, euskaraz egiten du. Horra zer den menturak bizitzea lau hizkuntzatan.